

## *Fósil*

### Educación ambiental cruzando fronteras

Ikastetxeko Agenda 2030 proiektuak antolatuta eta 2.mailako irakasleen laguntzarekin, gure ikastetxeko 2.DBH-KO IKASLEEK, "PLANETA DANTZAN" PROIEKTUAN PARTE HARTZEN ARI DIRA.



Gizakiak hiru planeta behar ditu egungo kontsumo-erritmoari eusteko. Ekoizpenaren, kontsumoaren eta horri lotutako kutsaduraren mailari aurre egitea ezinezkoa da, baliabide mugatuak dituen planeta batean bizi baikara. Nola helarazi ideia hori gazteei eta haiengan jarrera-aldaketak eragin?

Testuinguru horretan kokatzen da "Planeta Dantzan" Artea eta Ingurumena programa. Ekimen honek arte-lanetan oinarrituta emozioetara zuzenean iristearen alde egiten du, eta ekintzara mugiaraziko gaituen erreakzioa eragiten saiatzen da. Ingurumen-mezu erakargarri bat helarazi nahi du, metodologia eta baliabide berritzaileak erabiliz, hezkuntza-programak aberasteko eta ikasleak dantzara eta arte-sorkuntzara hurbiltzeko.

Hezkuntzan aintzindaria izan den ekimen honek, Sirenes - Isaslaminak obrarekin ekin zion (eco-sirenes.eu) 2018an, aurten Martin Harriaguek sortu duen Fossile- Fossil obrarekin natura-baliabideen gehiegizko ustiapena eta gure bizimoduak ingurumenean duen eragina landuko dugu.

Planeta Dantzan, Donostiako Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko 15 eskola-talderi zabaldu zaie berriro 2021/2022 ikasturtean.

Ikastetxeentzat erabat doakoa den ekimen honek hezkuntza-curriculumaren helburuak indartzen ditu eta kronologikoki osagarriak diren lau sentsibilizazio-ekintzak osatzen dute:

**1.- Obra ikusi eta dantzariekin solasaldia:** Fossile obraren emanaldi berezia, proiektuan parte hartzen duten ikasleei soilik zuzendua. Ikuskizunaren ondoren, dantzariekin eta koreografoarekin solasaldia izango da artistaren ikuspegia ulertzeko eta balletaren mundua hobeto ezagutzeko.

**2.- Testuinguruan kokatzeko saioa:** ingurumen-hezitzaile batek eta koreografo batek zuzendutako saioa. Bertan, kontsumoan oinarritutako egungo bizimoduak, planetan eragiten dituen ondorioei buruz hausnartzera gonbidatuko dira ikasleak. Gogoeta horrekin batera, dantzarekin eta gorputz-adierazpenarekin lehen harremana izango dute.



**3.- Koreografia-saioa:** Malandain Ballet Biarritzeko dantzariak dinamizatuta, "Fossile" obraren mugimendu eta sekuentzia koreografiko esanguratsuenetako batzuk landuko dira.



**4.-Sensibilizazio ekintza:** Ikertu - Sortu- Komunikatu

Ikasleek gizartea sentibilizatzeko ekintza bat diseinatu eta gauzatuko dute.